

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	INSTALAZIO AUTOMATIZATUEN KONPONKETA	Iraupena	60
		Baldintzatua	
Kodea	UF0891		
Lanbide-arloa	ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA		
Lanbide-eremua	Instalazio elektrikoak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Behe-tentsioko instalazio elektrikoen muntaketa eta mantentze-lanak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Instalazio elektriko automatizatuak eta automatismoen instalazioak	Iraupena	240
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Automatismo elektrikoen muntaketa eta konponketa	Iraupena	60
	Instalazio automatizatuen muntaketa		90
	Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa instalazio elektrikoen muntaketan eta mantentze-lanetan (zeharkakoa)		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0822_2 gaitasun-ataleko LB4 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Instalazio automatizatuetako matxurak konpontzea.

EI1.1 Instalazio automatizatuetako ohiko matxuren ezaugarriak eta matxurarekin zerikusia duen elementua erlazionatzea.

EI1.2 Instalazio automatizatu batean, benetako edo eragindako matxurak lokalizatzea eta konpontzea.

- Ereduzko matxuren diagnostikorako eta lokalizatorako erabilitako prozesua adieraztea.
- Teknika eta bitarteko espezifikoak matxura-motarekin erlazionatzea.
- Matxuraren sintomak identifikatzea, eta matxurak instalazioan eragiten dituen ondorioekin erlazionatzea.
- Matxuraren kausa edo kausak hautemateko, esku-hartze plan bat egitea.
- Matxuraren kausa diagnostikatzea, beharrezko test, entsegu eta neurketak eginez eta emaitzak interpretatuz, dokumentuen eta programaren arabera.
- Matxura eragin duen elementu edo osagaia lokalizatzea, beharrezko prozedurak aplikatuz.
- Funtzionamendu-kondizioak berriz jartzea, elementu hondatua ordezkatzuz edo kontrol-programan jardunez, beharrezko prozedurak aplikatuz.
- Egindako jardueren eta lortutako emaitzen txostena prestatzea.
- Aurrekontu bat egitea, kontuan hartuz merkataritza-katalogoetatik lortutako materialen prezioak, erabili beharreko denboraren kalkulua eta ordaindu beharreko zergak.

Edukiak

1. Instalazio automatizatuen mantentze-lanak, doikuntza eta konponketa.

- Eskema elektrikoa eta kontrol-programa irakurtzea.
- Parametroak berrikustea eta aginte-programaren testa egitea.
- Instalazio automatizatuetako ereduzko matxurak.
- Matxuren sintomak eta ondorioak.
- Instalazio automatizatuetako matxuren diagnostikoa eta lokalizazioa (entseguak, neurketak, prozedurak eta segurtasun-elementuak).
- Matxuren konponketa.

2. Instalazioei buruzko dokumentazioa.

- Instalazioaren egoerari buruzko txostena.
- Jarduteko oinarriko prozedurak.
- Txosten teknikoa, eskema elektrikoak, erabileraren eta mantentze-lanen jarraibide orokorrak, etab.
- Egindako ekintzei buruzko txostenak prestatzea.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

UF0890 gainditua izan behar du: Instalazio automatizatuen muntaketa

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Behe-tentsioko instalazio elektriko muntaketa eta mantentze-lanak.